

Hitzordu

Bularretik Mintzora Berritua

Jone Arroitauregi

Bularretik Mintzora kanpainak ongietorria egiten die EAEko jaioberri guztiei

2011n zehar EAE n jaiotzen diren haur guztien gurasoei, ospitalean bertan, paketetxo bat oparitutoko zaie. Bertan BULARRETIK MINTZORA CD-liburua, irakurketarekin hasteko gomendio batzuk, eta haurrekin irakurtzeko liburu-zerrenda bat ere aurkituko dituzte.

Oraingo honetan GALTZAGORRI HAUR ETA GAZTE LITERATURA ELKARTEAK, EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA SAILAK eta OSAKIDETZAK elkarlanean aurrera ateratako proiektu bat da.

Zergatik? Irakurtzea altxor bat delako. Haur txiki batek ere dasta dezake altxor horretatik baldin eta bere inguruko heldu horiek «irakurtzen» ematen badiote, jaten ematen dioten bezalaxe. Alde horretatik, «irakurtzen ematen» diogunean, haurren garapen intelektuala, emozionala, soziala, eta, aldi berean, hizkuntzaren estimulatzen ditugu.

Sasi guztien gainetik CD-liburu berria kalean

BULARRETIK MINTZORA kanpainaren baitan SASI GUZTIEN GAINETIK bigarren CD-liburua argitara eman da 2011n, lehendik zegoenaren jarraipen moduan. Bertan parte hartu duten egileak honako hauek izan dira: Itziar Zubizarreta ideia orokorra, testuen aukeraketa eta moldaketa;

Zuriñe Fernandez musikaren konposaketa; eta Elena Odriozola irudi eta diseinua.

BULARRETIK MINTZORA lehenengo CD-liburua, izen bereko egitasmo osoaren euskarri dena, 2007an argitaratu zen lehenengo aldiz, GALTZAGORRI HAUR ETA GAZTE LITERATURA ELKARTEAREN eta EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA SAILAREN arteko lankidetzaren fruitu. Kasu hartan egileak izan ziren: Itziar Zubizarreta ideia orokorra, testuen aukeraketa eta moldaketa; Aurelio Edler musikaren konposaketa; eta Elena Odriozola irudi eta diseinua.

SASI GUZTIEN GAINETIK, BULARRETIK MINTZORA kanpainan parte hartzen ari diren herrietako ikastetxeetan banatuko da aurtengo udaberrian, haur hezkuntzako 5 urteko ikasle guztien artean.

Bularretik Mintzora kanpaina aurrera

2010/2011 ikasturtean dagoneko 10 herri ari dira kanpainan parte hartzen: Amurrio, Aramaio, Donostia, Ermua, Iurreta, Legazpi, Markina-Xemein, Oñati, Urkabustaitz eta Tolosa.

2009/2010 ikasturtean kanpainaren ebaluazioa hasi zen Amurrio, Ermua, Iurreta, Oñati eta Tolosan, parte hartzen hasi ziren lehenengo bost herrietan hain zuzen ere.

Ebaluazioaren ondorio orokorrak BULARRETIK MINTZORA webgunean irakur daitezke, baina azpimarratze-kotan esan daiteke:

Gurasoen % 92,5k uste du jaioberritatik hasi behar dela irakurketa lantzen. Datu hori oso baikorra da, baina beste datu batzuetatik ondorioztatzen da gurasoek ez dutela ezagutzen tresna nahikorik era egokian aurrera eramateko.

Orokorrean gurasoek aitortzen dute haur-literaturari buruzko baliabideen inguruan informazio falta handia dagoela.

Bi kasu horietan, BULARRETIK MINTZORAK informazioa eta baliabideak jarri nahi ditu gurasoen esku, formazioaren bitartez, modu autonomoan, haur-literaturaren munduan eroso mugi daitezen, beraien seme-alabei modu eraginkorrean lagundu ahal izateko.

Gurasoen % 50 joaten da liburutegira bere seme-alabekin. Irakurzaletasuna sustatzerakoan ohitura hori finkatzea ezinbestekoa da. Hain zuzen, hori lortu nahi du BULARRETIK MINTZORAK: 0-6 urte bitarteko haur gehienak, eta haien gurasoak, liburutegietara joatea.

Informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu BULARRETIK MINTZORA webgunea:

<http://www.bularretikmintzora.org>